

**BIKAIN-EUSKARAREN KALITATE ZIURTAGIRIA ARAUTZEN DUEN DEKRETUARI BURUZKO
TXOSTENA**

2017/27 LT

I.- AURREKARIAK

Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Lege Aholkularitzak BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen duen dekretuari buruzko txostena eskatu du. Dekretu horren testuarekin batera espedientean honako agiri hauek daude:

- Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendariaren memoria.
- Dekretua egiten hasteko prozedura abiatzen duen Agindua.
- Dekretuari onarpena ematen dion Agindua.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena.
- Hizkuntza, Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak egindako txostena, generoaren araberrako eraginaren gainean.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Lege Aholkularitzak egindako txostena.
- Osakidetzako Euskara Zerbitzu Korporatiboak jorratutako txostena.
- Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak egindako txostena.
- Herri Administrazio eta Justizia Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak egindako txostena.
- Emakundek egindako txostena.

Txosten hau oinarritzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 6.1.h) atalean, eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 188/2013 Dekretuaren 13.1 c) atalean. Izan ere, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1 atalaren arabera, ez dagokio Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari dekretu honen legezotasunaren barne kontrola.

II.- DEKRETUAREN AZTERKETA

A). Eskumenak

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua arabera euskarak, Euskal Herrian berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du gaztelaniarekin batera eta Autonomia Erkidegoko Erakunde komunek bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte. Halaber, testu horren 10.17 artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela kultura arloan.

Horren ildotik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 14. artikulua arabera Kultura Sailari dagozkio hizkuntza-politikaren eta euskararen sustapenaren inguruko egitekoak eta jardun arloak. Honetaz gain, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 24.d) artikulua bat etorritik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinazio Zuzendaritzak bere zeregin artean dauka *“Erakunde publiko eta pribatuaren jardueretan euskararen erabilera nolakoa den jakiteko eta ebaluatzeko sistema bat ezartzeko azterketa egitea, eta sistema horren ezarpena sustatzea, gaur egun dauden kalitatea ziurtatzeko sistemetan jasotako irizpide eta parametroetan oinarrituta.”*

B) Dekretua bideratzeko prozedura

Dekretua lantzeko eta haren izapideak bideratzeko Xedapen Orokorrek egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ezarritako bideari jarraitu behar zaio. Espedientean dauden agiriak kontuan izanda argi dago lege horretan aipatutako izapide guztiak bete direla.

Bestalde, bete dira ere Gobernu Kontseiluak Legeak, Dekretuak, Aginduak eta Erabakiak egiteko, 1993ko martxoaren 23an, onartutako gida-lerroak.

D) Dekretuaren edukia

Dekretu honen xedea da BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiria, eta berau lortzeko egin beharreko ebaluazio-prozesua arautzea. Honen aurrekaria da BIKAIN-Hizkuntza Konpromisoaren Zigilua

eta Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen dituen martxoaren 3ko 53/2009 Dekretua. Hala ere, BIKAIN sortu zenetik urte batzuk pasa dira eta, aldaketa batzuk egin behar direnez, indarrean dagoen dekretua aldatu beharrean egokiago ikusi da dekretu berri bat egitea.

Dekretu honek honako egitura dauka: zioen adierazpena, hamazortzi artikulua, hiru xedapen gehigarri, indargabetze xedapen bat, bi xedapen iragankor, bi azken xedapen eta bi eranskin.

Lehenengo artikuluan Dekretuaren helburua finkatzen da, hau da, BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiria, eta berau lortzeko egin beharreko ebaluazio-prozesua arautzea. Bigarren artikulua ziurtagiriaren hartzaileen sailkapena egiten du. Hirugarren artikulua ziurtagiriaren edukiari buruzkoa da eta ezartzen du ebaluazioa egiteko erabiltzen den ereduak, hau da Erreferentzia Marko Estandarra (EME), bi ardatz dituela: zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza. Laugarren artikulua ziurtagiriaren mailak arautzen ditu: hiru maila dira: oinarrizkoa, erdikoa eta goikoa eta maila bakoitza lortuko da EMEn ardatz bakoitzari egokitutako puntuazioaren batuketaren arabera, guztira 1.000 puntu. Gutxieneko puntu-kopurua eskatzen da ziurtagiri-maila bakoitza lortzeko: 200 puntu oinarrizko mailarako, 500 puntu erdi-mailarako eta 800 puntu goi-mailarako.

Bosgarren artikulua ezartzen du BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren egiaztapen-sistema eta prozesuaren faseak. Bertan azaltzen da kanpo-ebaluazioaren prozesuan hiru aldek parte hartuko dutela: ebaluatuko den erakundeak, talde ebaluatzaileak eta prozesuaren kudeatzaileak. Honez gain, ebaluazio-prozesuaren bederatzigarren fase nagusiak finkatzen ditu. Seigarren artikulua BIKAIN Ebaluatzaileen Klubari buruzkoa da eta horretan adierazten da nortzuk izan daitezkeen kanpo-ebaluazioak egiten dituen klub honen kideak. Zazpigarren artikulua BIKAIN marka arautzen du eta ezartzen du marka, zein irudiak eta ikurrak, Eusko Jaurlaritzarenak direla eta haren izenean inskribatuta daudela.

Zortzigarren artikulua BIKAIN-Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren Artezkaritza Kontseilua sortzen du eta horren kideak zehazten ditu. Partaidetza sozialeko organo aholku-emailea da eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari edo hizkuntza-politikaren eremuan eskuduna den organoari atxikia dago, baina haren egitura hierarkikotik at gelditzen delarik. **Artikulu honen 6. puntuan aldaketa egin behar da: azaroaren 26ko 30/1992 legea indargabetua dagoenez, bere ordez Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aipatu behar da.** Bestalde Artezkaritza Kontseiluaren egitekoak eta jarduera azalduta daude bederatzigarren artikuluan.

Hurrengo artikuluek ebaluazio-prozesua arautzen dute. Hamargarren artikulua ezartzen du horren kudeaketa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzari dagokiola. Hamaikagarren artikulua zehazten ditu prozesuan parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintzak. Hamabigarren artikuluan adierazten da zeintzuk diren Erakundeek aurkeztu



beharreko agiriak. Hamahirugarren artikulua azaltzen du prozedurako izapide guztiak egiteko bide elektronikoa erabili behar dela. Hamalauugarren artikuluan hamar eguneko epea ezartzen da aurkeztutako eskabidean egindako akatsak zuzentzeko. Hamabosgarren artikulua arabera Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendariaren ebazpen bidez, eskatzaileetako bakoitzari jakinaraziko zaio kanpo-ebaluazioaren prozesuan parte hartzeko eskaera onartua izan den edo ez, eta onartua izanez gero, zein izango den ebaluazioaren kronograma. Hamaseigarren artikulua ezartzen du ze kasutan galdu ahal duten erakundeek ebaluazioa jasotzeko eskubidea. Hamazazpigarren artikulua zehazten ditu kanpo-ebaluazioaren zerbitzua jasoko duten erakundeen betebeharrak. Azkenik, hamazortzigarren artikulua adierazten du ebaluazio-prozesua amaitu ostean, Hizkuntza Politikarako sailburuari dagokiola, ebazpen bidez, erakunde bakoitzari kanpo-ebaluazioan aitortutako ziurtagiri-maila jakinaraztea.

Xedapenei dagokienez **komenigarria izango litzateke aldaketa bat egitea, lehenengo xedapen iragankorren hain zuzen ere. Dekretua 2016an onartu ez denez, bigarren esaldia sobera dago eta ez dauka zentzurik mantentzeak.**

III. ONDORIOA

BIKAIN-Euskararen Kalitate ziurtagiria arautzen duen Dekretua, zortzigarren artikulua behin zuzenduta, legediarekin bat dator. Hau da nik neuk emandako txostena, eta zuzenbidean oinarritutako edozein txosten hoberen menpe jartzen dut.